

egiten gara herri honetan biziteko euskerea behar-beharrezkoa dana, txikitoak hartzen gagozala tabernariari eskatzeko besterik ez bada be».

Alkartean behar egiten dabenek argi daukie zer dagoen horren guztiorren atzean: «Arinago analfabeto gura ginduezan, orain barriz, euskaldun analfabetoak. Gu geu kargutzen gara ijitoak erabili egiten gaituela hainbat herritan A ereduari eusteko. Arinago ume ijitoak bakarrik, eta orain ijitoak eta etorkinen umeak».

Ilobak auzotik kanpo ikasten

Borjak berak horren garbi dauka zer dan gertatzen dana, bere ilobak auzotik kanpo dagoen eskola batera eroan dituala ikasteko aukerea euki daien, euskeraz ganera. «Tristea da benetan gu bertokoak izanda, eta auzoan jaio eta bizi arren, kanpora urten behar izatea gure umeek ikastea gura dogulako», nabarmendu dau.

Berba gogorak dira Borjarenak, baina ez dira arazo horren ganean aspaldion entzun diran bakarrak. Eguenean, Azkuna alkateak udalbatzarra bertan behera itxi ebanean, gai horren ganeko mozino bat aztertzen hastekotan egozan zinegotziak. Sozialista Abertzaleak taldeak hiru eskaera egin eutsazan udalbatzarrari: etorkinei euren umeak B eta D ereduaren ikasteak emoten dituan onurak jakin eragitea, lehenengoa; Udalak Hezkuntza Sailagaz batera, umeontzat eskola kanpoko laguntza klaseak ipintea, bigarrena; eta, hirugarrena, umeon gurasoentzako be euskera klaseak eskaintzea.

BIZKAIA-k jakin dauenez, Gobernu Taldeak ez eukan proposamena onartzeko asmoa, euren ustez etorkinei eskolan aurkituko dituen hiru ereduaren ganeko informazioa emon behar jakelako, eta ez bakarrik euskerazkoen ingurukoa. Hala balitz be, pausoa litzateke, orain A eredura bultzaten diutelako etorkinen umeak.

Ijitoak Bilbo bertokoak badi-ra be, oraindino etorkinen egoera bardinean dagozala azpimarratu gura izan dau Ijitoen Ekimenako kide horrek.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

SAN FRANTZISKOKO ESKOLEA. Aparkalekua egiteko ikastetxea dagoen lekutik kendu egingo dabe.

ATXURIKO ESKOLEA

Aldaketea ahalegin handiari esker lortu zan

Asko dira San Frantziskon eta Bilbo Zaharrean euren umeak Atxuriko eskolara eroaten dituen gurasoak. Euskeraz ikasiko dabela baimen garrantzizkoa da eurentzat, bertan umeek kalidadeko heziketea jasoko dabela jakitea. Atxurikoak garai baten euren auzoko eskoleak dituan arazo bardin-bardinak izan zituala. Gurasoen eta irakasleen ahaleginari eta antolakuntzeari esker lortu zan aldaketea. San Frantziskon be egon bada goz bide hori egin gura dabene gurasoak. Baita, gitxi diran arren, eskolan hainbat irakasle be. Ondo dakie bide gogorra izango dana.

SAN FRANTZISKO

Auzokoen ustez, lekuz ez eze, eskoleak ereduz be aldatu behar dau

San Frantziskoko eskoleari denpora gitxi geratzen jako Mariaren Bihotza plazan. Auzoa bizibarritzeko planak dirala eta, hor lurpeko aparkalekuak egin gura ditue eta, horretarako, ikastetxea bota egin behar dabe. Asmoa dagoen lekutik ehun metrora eroatea da, Miribillan egiten dagozan auzo barriaren albo-alboan.

Auzo Alkarteko kideak arduratuta dagoz. Ez bakarrik eskolea auzoaren bihotzetik atarako dabelako. Aldaketeagaz batera, hezkuntza ereduari be buelta emon ezkerro, eurak pozik. Arduratuta dagoz ikusten dabelako hor beste inora joan ezin diranak baino ez dagozala. Aukerea dau-

kien gurasoek beste nonora eroaten ditue umeak. Ahal izan ezkerro, Atxuriko eskolara. Horren eragina handia da auzoan: «30 urte baino gitxiago daukien gazteek auzotik kanpora egiten ditue hartu-emonak eta horrek gatx egiten dau integrazino».

Arturo Izarzelaiaren berbak dira horrek. Alkartek hamaika puntuko txostena gertau dau auzoak dituan arazoei erantzuteko. Eskolea ez da lehenengoa, baina bai arduren artean handienetakoa. Ezin da onartu, euren ustez, euren auzoko eskolea erderearen gotorleku dalako, euren umeak euskeraz ikasi, eta kalidadeko heziketea jaso daien gura dabene gurasoek auzotik kanpo urten behar izatea.

Euren ustez, eskolea dagoen lekuan ondo dago. Aldaketea onartzeko prest dagoz, baina horrek hezkuntza eredu be aldatuko badau. Gaur egun, 0-3 urteko umeentzako D eredu gela bakarra dago

ikastetxearen barruan, baina eskola egituratik kanpo. Talde barria da eta gurasoak pozik dagoz. Hori bai, dan-danek dakie ez dabela hor jarraitzerik izango. Euren asmoa umea Atxuriko eskolara eroatea da, baina dagoeneko badakie gehienek ez dabela lortuko, han lekuri ez dagoelako.

Antolatzen hasi dira, Hezkuntza Sailagaz berba egin dabe, eta emon deuten aukera bakarra Zabalako eskolan D eredu gelea ipintea da. Ez gurasoek ez Auzo Alkartekoek ez dabe aintzat hartzen Administrazioaren eskaintzea. Ondo dakie San Frantziskoko eskolan giroa erdal-duna bada, Zabalakoa ez dana hobea. «Eskaintza horrek zentzunik ez dauka, euren be ondo dakielako tira-birak eragingo dituala. San Frantziskon eskola barria egiteko asmoa badaukie, zabaldu daiela bertan euskerazko lerro», azpimarratu dabe Auzo Alkarteko kideek.

ESKOLEA	EGOEREA	AURRE-ESKOLEA	ESKAITZEA
Eskolea lekuz aldatzeaz batera, barruko hezkuntza ereduari be buelta emon ezkerro, Auzo Alkartekoak pozik	Ezin dabe onartu euren umeak euskeraz ikasi, eta kalidadeko heziketea jaso daien gura dabenek auzotik kanpo urtetea	Talde barria da eta gurasoak pozik dagoz. Hori bai, dan-danek dakie ez dabela gero bertan jarraitzerik izango	Hezkuntza Sailagaz berba egin dabe, eta aukera bakarra Zabalako eskolan D eredu gelea ipintea emon deute

GETXOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETXO

HAUTAPEN PROZEDURA
BEDERATZI (9) BEHARGIN PLAZA

Lehenengo ariketa (euskara). 2003ko otsailaren 12an egingo da, 10:30etan, Nautika Eskolan, M^a Diaz de Haro kaleko 68.an, 48920, portugaletan. Ariketa egiteko dei egiten zaie onartutako hautagai gustiei. Norberaren nortasuna frogatzen duen agiria eta ariketa egiteko behar diren bitartekoak ekarri behar dituzte. Horietako ezein ez badute ekartzen, ariketa egiteko eskubidea galduko dute.

Bizkaiko Foru Aldundia
Lan eta Trebaketa Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Empleo y Formación

Azpiegitura

LEHIAKETA:

- Helburua:** Azpiegitura, S.A.rako "Erakundeko Ataria" garatzea.
- Prozedura:** Irekia
- Era:** Lehiaketa
- Agiriak eskatzeko tokia:**
 - Cianoplán; M^a Diaz de Haro, 10-bis Bilbo
 - Sercopi; Barria, 1 Areeta-Getxo
- Eskaintzak eta kontsultak aurkeztea:** Azpiegitura, S.A.ren bulegoetan. Industri Azpiegitura Zerbitzua. Sabino Arana, 8 - 48013 Bilbo 2003ko otsailaren 28ko 13:00ak arte Tlf.: 944 393 561 www.azpiegitura.net

Bilbon, 2003ko urtarrilaren 31n

Bizkaiko Foru Aldundia
Lan eta Trebaketa Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Empleo y Formación

Azpiegitura

LEHIAKETA:

- Helburua:** Sabino Arana 8ko 5. solairuko bulegoetarako altzariak kontratatzea
- Gehieneko aurrekontua:** 51.635 €, BEZA sartzeke
- Prozedura:** Irekia
- Era:** Lehiaketa
- Agiriak eskatzeko tokia:**
 - Cianoplán; M^a Diaz de Haro, 10-bis Bilbo
 - Sercopi; Barria, 1 Areeta-Getxo
- Eskaintzak aurkeztea:** Azpiegitura, S.A.ren bulegoetan. Lan Atala Sabino Arana, 8 - 48013 Bilbo 2003ko otsailaren 28ko 14ak arte Tlf.: 944 393 561 www.azpiegitura.net

Bilbon, 2003ko urtarrilaren 29an